

Dunetako biztanleak

Dunan bizitzea ez da erraza, oso animalia gutxi dira gai halako inguru babesgabean bizitzeko. Hala ere zenbait espeziek duna du bere habitata.

Zenbait intsektu-espeziek hanean egindako barrunbe txikietan egiten dituzte umeak.

Zenbait hegaztik dunetan atsedean hartzen du, eta beste batzuek, duna finkatuko balitz, bertan umetu ahal izango lukete; esaterako, txirritxo txikiak. Duna heldua denean apo lasterkaria ager daiteke.



APO LASTERKARIA

Dunari laguntzeko egin dezakeguna

Laidako duna berreratzeko proiektuak zure lankidetzara behar du. Proiektuak arrakasta izan dezan, beharrezkoa da oinarrizko zenbait jokoera-arau errespetatzea. Hondartza ederragoaz eta handiagoaz gozatu nahi badugu, dunekin eta bertako biztanleekin batera harmonian bizi behar dugu.

Dunetako perimetrea ez da zeharkatu behar.

Gogora ezazu dunak eratze-prozesuan daudela. Zapaltzen ibiltzeak kalte larriak eragin diezazkioke landaretzari.

Ez ezazu dunetako landaririk hartu.

Gogora ezazu landare horietatik gehienak babestuta daudela. Landare guztiak dira garrantzizkoak. Errespetatu itzazu.

Baimenik ez duten ibilgailuek debekatua dute dunetan sartzea.

Kanpatzea debekatuta dago.

Ez ezazu utzi zaborrik dunetan.

Mesedez, eraman itzazu sor ditzakezun hondakinak (zigarro-puntak, plastikoak, hondakin organikoak ...) eta utz itzazu edukiontzian.

Errespetatu itzazu hondartzan dauden seinaleak.

Erabil itzazu dunetan seinaleztatuta dauden barne-bideak soilik.

LAIKAKO

DUNETARA BISITALDIA


Ibilbiderako material lagungarria



Harea zerez egin dagoen

Laidako hondartzako harea itsasoak itsas hondoetan eta itsasertza osatzen duten haitzetan eragiten duen higadura-lan handiaren ondorioa da. Itsasoak berekin ekartzen ditu harri txikiak eta maskorrak eta, horiek beraien artean talka egiten dute, itsaslabarrekin kolpekatzen dira, gero eta pusketa txikiagoetan hausten dira eta harea sortzen da.

LANDARETZA



Duna zer den


Dunak hareazko formazioak dira, eta haizearen, harearen eta landaretzaren ekintza konbinatuaren ondorioz sortzen dira.

Duna eratzen den modua

Duna eratu ahal izateko, elementu hauek behar dira:

- Harea
- Harea mugiarazteko gauza den haizea
- Harea pilotzeko lekua

- 1.- Olatuek harea ekartzen dute, eta itsasertzean pilotzen da.
- 2.- Eguzkiak lehortutako harea haizeak oso erraz garraiatzen du.
- 3.- Maskorrek eta harri-koskorrek haizearen indarra ahultzen dute, eta beren inguruan harea xehezko pilaketak eragiten dituzte.
- 4.- Azkenik, landaretzak duna finkatu eta haziarazten du.



Dunak eratzen laguntzearen zergatia

- 1.- Naturaren hazkunde-prozesua motela delako eta hondartzako giza jarduerak oztopatu egiten dutelako.
- 2.- Hondartzak, bestalde, gizakiarentzako aisialdirako eta gozamenerako guneak direlako, eta bi alderdiak errespetatu behar direlako.
- 3.- Dunentzako esparruak ez bagenitu mugatuko, ezingo genituzkeelako berreskuratu.
- 4.- Dunak ahalik eta lasterren eratzen badira, hainbat eta lehenago babestuko dugu hondartza itsasoaren erasoetatik.
- 5.- Hala, esku hartu eta landare inbadi-tzaileak kontrola ditzakegulako.



Dunak berreskuratzeko modua

- 1.- Lehenengo, hondartzan eragiten duten elementu guztien azterketa egiten da: haize nagusia, harea-motak, itsas korronteak, etab.
- 2.- Gero, aukeratutako lekuetan, harrapatzaileak jartzen dira sahatsaren adar lehorrak erabiliz, harea xehea bilduko duten hesiak osatzeko.
- 3.- Harea xehea bildutakoan, duna hazi egiten da, eta duna-landareak landatzen dira. Laidan 600.000 landare landatu dira.
- 4.- Une horretatik aurrera, dunak sistema natural baten antzera funtzionatzen hasten dira.

Dunek betetzen duten funtzioa



* Dunek haizearengandik eta itsasoarengandik babesten dituzte hondartzak, harea-galerak eragozten dituzte, eta hura dagokion tokian pilatzen laguntzen dute.

* Dunak luzeran eta zabaleran hazten dira, eta hondartzako gozamenerako esparrua –eguzkia hartu, jolastu, kirola egin, etab– hedatzen dute.

* Dunek hondartzaren erabilera dibertsifikatzen dute. Duna-erliebeak haizearengandik babestutako guneak sortzen ditu, eta mikroklima leuna eskaintzen du egun hotzetan. Halaber, dunek mota askotako aisialdirako aukerak ematen dituzte, eta natura behatzeko aukera eta lasaitasuna eskaintzen dituzte urtaro guztietan.


* Dunei esker, harea ez da garraiatzen estuario barrurantz, eta horri esker, harea ez da itsasadarrean barrena barreiatzen.

* Dunak itsasertzeko paisaia dibertsifikatzen du, erakargarriagoa eta naturalagoa egiten duelako.

* Duna arriskuan dauden espezieentzako balio handiko habitata da, eta hura berreskuratzea guztion erantzukizuna da.



Landaretza bitxia



IDENTIFIKATU LANDAREAK :

Dunetako landareak duna-habitatetan baino ez dira bizi. Hau da, hanean bizitzeko egokituta daude. Dunetatik kanpo ezin go lukete bizi. Laidako dunetan dauden hainbat landare arriskuan daude.

Ezaugarriak:

Haien hostoak txikiak eta mamitsuak dira. Haien sustraiak luzeak dira, harearen sakonean ura bilatu ahal izateko. Zenbaitek erraboiak eta errizomak garatzen dituzte, ura metatzeko. Haizeak garraiatutako harearen kolpeak ondo jasaten dituzte.

- | | | |
|-----------|-----------|------------|
| 1.- _____ | 5.- _____ | 9.- _____ |
| 2.- _____ | 6.- _____ | 10.- _____ |
| 3.- _____ | 7.- _____ | 11.- _____ |
| 4.- _____ | 8.- _____ | |